

PROPOSAMENAREN JARRAIPEN FITXA

○ AURREKONTUAREN URTEA:

2017

○ PROPOSAMENA:

Nerabe eta gaztetxoentzako kultur - aisialdi ekintza gehiago antolatu, Gazte Txokoan egiten dena indartuz.

○ EGOERAREN AZALPENA:

Hernani Erabakiren baitan, nerabe-gazteentzat antolatutako ekintza gehiago eskaintzeko proposamena gauzatzen aritu zen Udala. Gainera, amaitu berria den kulturaren inguruko hausnarketan gazte eta nerabeei zuzendutako eskaintzari buruko kezka ere jaso da. Ondorioz, kezka hori aztertu eta plangintza bat osatzeko lanean jarri dira Hernaniko Kultura eta Gazteria Sailak. Plangintza hori, gainera, herriko kultur eragileekin batera egin nahi da. Hori dela eta, eragileek ikastaro egitasmoak aurkeztu ahalko dituzte. Ikastaroen helburuak nerabeen artean sormena sustatzea izan behar du: gazteak kultura kontsumitzaile hutsetik sortzaile izatera pasatzea da xedea. Horretarako, formatu laburreko ikastaroak izatea da asmoa.

Jasotako proposamenak aztertu ostean, gazteek beraiek aukeratu dituzte gustukoena. Bozketa bidez egin zen aukeraketa. Online galdeketa ireki zen irailean zehar, 12 eta 17 urte bitartean dituzten gazteek ikastaro gogokoenak bozkatzeko. Boto gehien jaso zituzten ikastaroak antolatu dira.

Nerabeentzako kultura eskaintza osagarria oso ongi baloratu da bai erabiltzaileen aldetik, baita antolatzaileen aldetik ere. Ikusirik nerabeen sormena pizteko baliagarri izan direla eta espresio bide ezberdinak ezagutzeko aukera izan dutela, ikastaroak antolatzen jarraitu da 2020 urtean. Horretarako, partida berri bat sortu da Gazteria Arloan.



○ SAIL ARDURADUNA:

GAZTERIA

PROPOSAMENAREN JARRAIPEN FITXA

○ GARATU DEN EPEA:

○ AURREIKUSITAKO GASTUA:

25000

PROPOSAMENAREN JARRAIPEN FITXA



Neska gazteentzako

AUTODEFENTSA FEMINISTA TAILERRA (doan)

Ekainak 19, 16:00-20:00 Biteri kultur etxean

Izen ematea: ekainaren 15era arte Biterin



GAZTEAK (13-17 URTE)

**ANTZERKIA: denon artean
istorio bat sortu**

*urriak 6-abendua 15
Zarmitan 11:30-13:30*

IZEN-EMATEA
IRAILAREN 21a arte

**ARGAZKILARITZA
telefonoarekin eta
aplikazioak erabiliz**

*urriak 1-abendua 17
Astelehena 19:00-20:00*

PREZIOA:
Bertakoentzat:
34 € (urritik abendura)
39,15€ (urritik maiatzera)

**ZIRKUA EZAGUTUZ.
malabaresak, lurreko eta
aireko akrobaziak, oreka,
klown ...**

Kanpokoentzat:
41,21 € (urritik abendura)
51,51 € (urritik maiatzera)

*urriak 5 -abendua 14
ostirala 17:00-18:30*

DANTZA: hip-hop, Funky

*urriak 5 -maiatza 31
ostirala 18:30-19:30*

